

Getxo >MEETING<



Maiatzak 12 **Netwalking: Ideiak behar badituzu, ibiltzen hasi.**

Jada jakingo duzun moduan, bakarrik edo lagunartean ibiltzeak honako helburu hauek lortzen lagunduko dizu:

- - Ideia berriak lortzea
- - Dauden ideiak garatzea
- - Jorratzen ez dakizun gai bati buelta ematea

Azken saioan, Getxo Elkartegitik Getxo ItsasHub-era (Kirol Portura) egin dugu joan-etorria.

Ekonomia-Sustapena / Promoción económica
Getxo Elkartegia, Ogoño 1, 48930 Getxo (Bizkaia) 944660140
getxolan@getxo.eus • www.getxo.eus/es/promocion-economica

Jarrai gaitzazu: /Síguenos en:



Bide horretan:

- Elkar ezagutu dugu.
- Enpresan aurkitu ditzakegun zailtasunak mahaigaineratu ditugu eta horiek jorratzeko modua aztertu dugu.
- Beste pertsona batekin partekatu dugu egin nahi genuena. Eta hark entzun duenari buruzko bere ikuspuntua eman digu.

Eta, are gehiago, honako kontu hauetaz konturatu gara:

- Ibiltzeak ez du soilik hankak mugitzea eragiten, sormeneko pentsamendua ere bultzatzen du.
- Beste pertsona batzuekin ideiak partekatzea ideia horiek beste modu batera lantzeko ere balio du, entzuten gaituen pertsona hartzen dugulako kontuan.
- Aire zabalean lan egiteak gure ohiko testuinguru profesionaletik ateratzen gaitu, eta konfiantza eta umore ona mesedetzen ditu.
- Norbaitek zu entzutea garrantzitsua da eman ahal dizkizuten ideietatik ez ezik, egiten dizkizuten galderengatik ere (oraindik erantzunik ez duten galderak badira ere).

Orduan, probatu baldin baduzu eta funtzionatzen badu, zergatik ez duzu zure errutinetan txertatzen?